


www.horria.com
N

u

!



Apirilaren 7an,
Jai Batzordearen bilera




Gazte bat, sakeleko telefono bat

Txirrikitutik !

1959. urtean hegazkinez ateratako argazki honek garbi erakusten digu Kalezarrek zuen itxura. Gaur egun ezagutzen dugun Kalezarrek, ordukoarekin antz handia du baina normala denez, denborarekin gertatu diren zenbait aldaketa nabarmen gelditzen dira (lantegiak, Artzabalgo urbanizazioa, herri bideak zein errepede nagusia...) Ezagutzen al dituzue bertan ageri diren baserri zein etxeak? Ezkerreko aldetik hasita ea denak aipatzen ditudan: Errebaltxiki, Arotzanea, Errebal, Garagorrinea, Txopereneatxiki, Txopereneandi, Bizkarrenea, Azpietxea, Patronanea, Jerezenea, Paskualenea, Txorietxea, Portalea, Eskribanea, Erreroanea, Pelaioenea, Kontzeju, Ezkerrenea, Espaldetxe, Kuatronea, Barberonea, Alargunanea, Etxeberri, Arponarixiki....Kalezarko mojen eraikina eta ermita, Txaparrenberri baserria eta azkenaldi honetan ezaguna egin den Ugarte baserria ere hortxe ageri dira.

Zalao Arnaiz Ibareguren



Egilea: Paisajes Españoles, 1959, Kalezar

Jabea: NOAUA! Kultur Elkartea

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Sakeleko telefonoen kopuruak gora egin du nabarmen.

Aurkibidea

ZUTABEAN, NEREA ZINKUNEGI _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

SAKELEKO TELEFONOEN UGALTZEA _____ 12. ORR.

Eustat-ek aditzera eman berri duenez, EAEko ia gazte denek sakeleko telefono bana dute. Horretan, usurbildarrak ez dira ezberdinak.



NOAUA!KO BATZAR NAGUSIA _____ 14. ORR.

LANEAN HASI DA JEXUX ARTZE TALDEA _____ 15. ORR.

XIBA EKIMENA, BERRIZ ERE MARTXAN _____ 17. ORR.

AGENDAKO EKITALDI AIPAGARRIENAK _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



NEREA ZINKUNEGI

“Año de Nieves, año de bienes”

Pasa zaigu Aste Santua. Negu gorria aurtengoa, ñoooo... Ez dira hotzak berehalakoan bukatu... “Año de Nieves, año de bienes” dio refranero espainolak, adi beraz, Nieves eta Edurneak!!

Baina esan bezala, pasa zaigu Aste Santua; eguzkitxua... berotxua... *ateratzeko* plantxuak...(kanpora edo bestela...) “operación *salida*” gaztelerez deritzotena ere ematen da Aste Santuan. Hori bai, norberak jakingo du *salida* delakoa kotxearekin den edo kotxean den.

Kontuak kontu, Nievesek eta bikoteak kotxea aukeratu dute beraien iheserako. “Asteburu pasa... aspaldiko partez”.

Nievesek ordea, badu tripajatekorik. Izan ere, bidea nola dagoen ikusita, barrutik kendu ezin dabil trafikoko kanpaina iragarki hoiek.

Iritsi da bikotea etxera, “azkenik. Leher egina dago; hila-bete osoa darama hau ez bada bestea, gaixoa”.

Baina bi ordu, gehienez ere bi ordu r’erditan, Kantabrian dira. Horregatik Nievesek, denbora ez galtzarren, bera etortzerako prestatuak ditu maletak eta berarentzako mokaua mahai gainean.

Musu lehor bat eman dio berak eta jarraian mahaira ingu-

ratu eta aho betez frigorifikoa ireki du zerbeza prexko baten bila. Edan du bat tragoan ia, eta beste bat, eta dutxa azpira abiatu da bidean erantzitako arropaz arrastoa utziz.

Bitartean Nieves hasi da tripajaten; “gajoa! Izan ere, tentsio batean bizi da. Estresatuta dabil, triste. Eta klaro, erre egiten du horrek, jenioa pizten du. Eta berak jenio bizia du gero... bihotz handikoa, hori bai, baina jenio bizikoa”.

Buelta gehiegi ere ez dizkio Nievesek eman nahi aurreko egunean, edo aurrekoan, berak emandako zaplastekoari.

Itzuli da sukaldera erroa eroso jantzita, bidaiarako. Eta beste zerbeza bat hartu du biderako, eta Nievesen tripajate-rako.

Sartu dira kotxean Nieves eta bikotea.

Berak ez dakien arren, Nieves ez da itzuliko, bidean gertatu da...

Gero zenbaki bat besterik ez da izango notizieroa, zein zerrendetan sartu jakingo ez badute ere.

Ez naiz batere “moralinazalea”, baina... bere burua maite ez duena, are gutxiago maitatuko dutenekin topatzera kondenatua dago.

Muxuk ... nere buruari.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Tellabide: Egia osoa ez esatea, gezurra ez ote?

Gure baserriak badu 100 urteko historia eta bertan bizi gara berau sortu zuen amonaren erraina, gure ama (88 urteko ama bizirik oraindik) eta biloba, birbilobak. Eta herrian egin berri duzun zure liburuan (Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak) gure familiaren berririk ez azaltzeak jatorri horretakoak garenok nahigabetu egin gaitu.

Zure liburuan “iraganeko belaunaldien herentzia jasota gera dadin belaunaldi berrientzat” idatzi duzu. Zeuk ikus eta aztertu hau irakurtzean nola sentitu garen. Okerrik edo gezurrik ez dagoela iruditzen al zaizu? Gure leinua zure liburutik desagertua ikustea ez ote da oker egindako zerbaitegatik barkamena eskatzeko adinakoa, argibideak eman dizkizun gure familiari eskerrak ematearekin batera?

Ez deritzogu nahikoa arrazoi denik, “ber-

tako batzuk ni agertutako unean, beren etxean aurkitu edo ez genuen kointziditu” esatea (gure etxea ez baita inor gabe inoz geratzen, gainera), egon daitezkeen akatsengatik aitzakiak jartzen ibiltzeko. Nola idatzi bestela, haiei buruzko ezer? Kanpotik jasotako datuekin? Etnografia hitzak begirune eta duintasun gehiagoko ardura ez ote du merezi besteen esanetik informatu gabe eta hori kotejatzen ibili beharrik gabe? Abisurik uzteko edo telefonoz deitzeko aukerarik ez al zegoen? Liburua polita gelditu da, bai, baina, hori al da horrelako liburu bat egite-rakoan helburu nagusia, politasunaren truke egia sakrifikatzea?

Gure etxeak duen historiaren aztarna bakarra zuretzat “ezizena” izan da, besteen ahotik jaso, jakina. Bada, gure ustez, izengoitik eta ezizenaren artean tartetxo bat. Merezi ote du azterteak? Ulertezina egiten

zaigu, bestalde, inguru honetan ezagutzen dituzun izengoitik edo ezizen guztiak ez erabili izana. Inor ez mintzeko, noski. “Bizitza horrela dela —diozu—, bere alde argi eta ilunak dituela”, izengoitiek ere bai? Ez dago inolako alderik beraz, batzuk gordetzen ibiltzeko, ez eta jakiteari uko egin beharrik izateko ere.

Gure esku badago gure herriko baserrien eta baserritarren historia ongi idatzita uztea, merezi duen goraipamena museorakoa bakarrik izan ez dadin, baizik bertakoen bizia maite duen herriaren gerra irabaziko badugu, borrokatu eta saiatu egin beharko dugu begirunez, ongi eta serio, egia osoa bilatzen benetako bakearen bidean.

Karmele Urdanpilleta eta Mikel Larrañaga

Ekoirole berriak biltzeko kanpaina abiarazi du Tolosako Babarruna Elkarteak

Lurra baduzu eta ez dakizuzer egin? Zure baserrirako aldatutak baten bila al zabilta? Babarruna ekoirolea zara edota izan nahi duzu? Honela hasten da Tolosako Babarruna Elkarteak kide berriak bilatzeko abian jarri duen kanpaina. Lur pixka bat edukitzea nahikoa da. Gainera, ez omen da inbertsio handiegirik egin behar.

Soroko lanei buruzko asesoramendua ematen du Tolosako Babarruna Elkarteak. Babarruna erein eta partadak jartzeko makinaria ere badute. Soroko lanetaz bakarrik arduratu beharko da baserritarra. Behin babarruna bildu eta lehortu eta gero, elkarrekin Tolosan duen egoitzara eraman behar da leka eta guzti. Aletu, bereiztu, kongelatu eta zakuratu Tolosan bertan egiten da. Gainera,

babarruna ereitegatik ematen duten dirulaguntzaren kudeaketa (600 euro/ha) errazten dizu Tolosako Babarruna Elkarteak. Diputazioarekin duten hitzarmenari esker, inbertsioa arintzeko (barillak eta esolak erosteko) % 60aren finantziaketa eta dirulaguntza eskaintzen du Babarruna Elkarteak. Hori gutxi balitz, kalitate maila betetzen duen produkzio guztia erosteko konpromisoa hartzen du Elkarte honek.

Laguntzak eskatzeko epea zabalik

Famili edota etxeko ekonomiaren osagarri ona izan daiteke *Tolosako Babarrunaren* produkzioa. Dirulaguntzak eskatzeko epea, ordea, apirilaren 15ean amaituko da. Informazio gehiago Tolosako Babarruna Elkartearen jasoko duzu. (Telefonoa: 943 650 253).



EKOIZLEEK DIRULAGUNTZA JASOTZEKO AUKERA DUTE.

Ika-mika!

Zubieta zubietarrentzat

Usurbilgo Aralarkideok oso kezkatuta gaude Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailak Zubietan egin nahi dituzten esku hartze urbanistikoak direla eta: hipodromoa tokiz aldatzea, toki horretan txerretan eraikitzea, kartzela berria egitea, etab. Koartelak hara eramatea ere aipatu da. Esku hartze (edo esku sartzeko) hauen aurrean, aipatu erakundeek, ez dute zubietarren iritzirik eskatu.

Hori guztia dela eta Usurbilgo Aralarkideok hauxe adierazi nahi du:

1. Zubietaren etorkizunean eragina izan dezakeen edozein proposamenari

buruz zubietarren beraien iritzia kontuan hartzea ezinbestekoa da. Herritarren hitza errespetatzea ez da soilik bati interesatzen zaionean galdeketa bat egitea eta horrela ez denean nahi dena egitea.

2. Zubietak bere oraingo izaera eta nortasunari eutsi behar dio auzoaren garapenean oinarritutako baldintza moduan eta Zubietan planteatzen ari diren etxebizitza berrien kopuruak, auzoaren beharrak gainditzeaz gain, beraren nortasuna betirako aldatuko luke. Zubietak Donostiako, Usurbilgo eta Lasarteko birika berdeetako bat izaten jarraitu behar du.

3. Zubieta ez da Donostiako auzoa soilik,

Usurbilgoa ere bada. Horregatik, Donostiako Udalaren ekimen aldebakarrekorik ez da ametitzekoa. Beraz, Zubietan edozein ekimen garatzeak bi udalen interesak eta beharrak kontuan hartu behar ditu, betiere zubietarren euren beharren ondoren.

4. Donostiako Udalaren asmoek usurbildarron eta lasartearren bizitza kalitatean eragin negatibo adierazgarriak izan ditzake ingurutara milaka lagun bizitzera etortzearen ondorioz: trafiko-pilaketak, gune berdeen galera, herri-nortasuna galtzea, etab.

Usurbilgo Aralarkideok

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Apirilak 15. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Apirilak 8.



KOLDO
HUEGUN

Txokoalde

Udaberria

Kaixo Irakurle: azkeneko idatzitik hona denbora dexente pasa da, eta orduan hotza eta negua bazen nagusi, gaurkoan beste urtaro baten ataria dugu hizpide. San Jose loreak aspaldi atera ziren lozorrotik, sahots urritz eta abarrekin batera, eta aldi berean hauetaz elikatzen diren erleak ere. Neguko esnaera honen lekuko, gure erribera eta sorok dira, neguko estalkia aldatuz doaz pixkanaka, auzoko baserritarrei esker.

Natura esnatzen ari den bitartean, badirudi gizarteak lozorroan jarraitzen duela.

Aste Santuko jaiegunak aprobeztatuz, hain santu ez garenok mendi aldera jo dugu, Kataluniara hain zuzen, eta mendiz, elurrez eta eskiz gozatu ondoren eztarriak bustitzeko

parada izan dugu bertako “parrokietan”. Hauetako batean, “El Pais” egunkari bat eskuan itsatsi zitzaidan, eta beste kuriositateen artean, notizia esanguratsu bat “analizatze-ko” parada izan genuen, eta ze zapore zuen ezin tankerik hartu.

Hurrengo hileko 17ko zitarako, hautagai zerrenda bati buruzkoa zen, eta jainkoan oinordeko diren agintariak, arreta handiz “analizatu” ondoren, honako pekatu hauek aurkitu dituzte bertako bizkarretan:

-HBko hautagai izatea, manifestaren batean parte hartu izana, presoren bati idaztea, edo ez dakit zeinen lehengusu izatea ... eta gu “lo”.



ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Sariak

Jupiiii!! Baditut hiru galtza berri!! izan da Inoten boletina eman eta gaudituz gabeko gai bakarra duela ikusi orduko erreakzioa. Eta, nahigabe, nik ekarri gabe beste pasadizo batzuk etorri zaizkit burura: “nola ez dugula semea motibatzen, ikasturtea gaudituz gero motoa eta etxeratzeko ordurik eza eskaini dizkiogu-eta?”.

Nago gurasoek seme-alabei neurrigabeko sariak ematen dizkioten. Sari materialistak. Eta nola ez!, haurra pozik. Eta behar gabeko materialak asko kosta gabe eskuratzen dituztela irizten dut. Eta azkenik, askori gertatu bezala (sakeleko telefonoaz ari naiz, adibidez), beharrak sortzen ditugu behar ez lekuan. Honen aurrean, beraz, ikasleak begibistako sariengatik borrokatzera bultzatzen dira, eta ez barruan sortarazi geniezaiekeen zorientasunagatik.

Ikastolak Usurbil-Korrika ospatu zuenean

lanak izan ziren batzuk lasterka jartzen. Haiantzat euskara ez da esku artean uki dezaketenez zerbait; bai, ordea, aho-bihotz artean hunki dezakeena, besteentzat. Bigarren aukera honen atzetik ibili beharko genukeen. Motibazio-mota honen bila: batetik, material behar-sortzaileak baino aberasgarriagoa delako (ez da dirurik ordaindu behar, gainera) eta bestetik, ikasketa-heziketa beraien hobeberrerrako delako eta ez dutelako gurasoen mesedetan egin behar, beraien buruaren baizik.

Saritzeko badaude –ez baditugu dagoeneko galdu- beste modu batzuk. Horrek, noski, aurretikako lana prestatzea eskatzen du, eta haurrari erakutsi heziketaren balioa norberarengan eta gizartearengan gizartean. Preziorki ez duten gauzak omen dira lortzen zailenak: horregatik aberasgarrienak.

Etxetik hasita eskolan barrena gizarte hobe baterantz.

Parke berria

Kalezar



ALOÑA
PULIDO

Kaixo NOAUA!ko irakurle guztioi. Oraingo honetan ere hementxe naukazue Kalezargo kronika idazten. Aste Santuko oporrak ere, iritsi bezala joan zaizkigu oraingoan, baina zer dira Aste Santuko oporrak? Zertarako egiten dira? Egia esan, opor hauek jendeak ez ditu Aste Santuak dituen ospakizunetan parte hartzeko erabiltzen, bost egun hauek deskantsatzeko edota kanpora joateko aprobetxatzen dira. Eta non daude ba Aste Santuko balore horiek? Guzti hori pixkanaka galtzen ari da, urtetik urtera geroz eta garrantzi gutxiago dute balore erlijioso horiek...

Aste Santuan eguraldia ere garrantzitsua da, urte askotan Aste Santuan hasi izan da eguraldia hobetzen, hau da, eguzkia ateratzen... Askotan Aste Santuan nabarmentzen hasi izan gara udaberria iritsi dela. Hala ere, aurtengoan aurretik etorri zitzaigun udaberria edo uda, baina, batzuk diote pasa ditugun moduko beste hotzaldi bat datorrela oraindik.



Bestalde, Kalezarren kokatuz, nabarmena da azken aldirian berrikuntza asko egiten ari direla. Duela pare bat aste, gutxi gora behera, Kalezargo Haur Eskolan parke bat egin dute eskolako haurrentzat. Egia esan, aste honetan egin duen eguraldi onarekin haurrak oso gustura ibili dira parketxo horretan.

Hemen ere sutan

Atxegalde



NEREA
KORTA

Eguraldi ona bat-batean etorri zaigu, eta gehienok gustura hartu dugu. Baina baten batek San Juanak iritsi direla uste du, antza. Martxoaren 18an Bilbotik nentorrela, izugarritzeko suteak hartu zuen Lezama aldeko mendixka bat. 19an, Senpere aldean ere, sute latza egon zen, zenbait tokitan sortutakoa, dirudienez.

Elduain eta Berastegi artean gertatutakoa gogorrragoa izan zen; 100 hektarea inguru erre ziren eta A-15 autobidea itxi behar izan zuten. Nahita hasitako sutea izan daitekeela diote suhiltzaileek.

Usurbilen ere baten batek ekainean gaudela pentsatu du. Martxoaren 19an, gaueko hamaikak aldera, etxetik atera eta segituan aditu nuen erre usaina. Hiru egun jarraian hego haizea, eta jendea herria erretzen hasten da. Kanposantu ondoko belardiko landareei sua eman zien norbaitek. Beste askotan ere erretzen dituzte, baina inoiz ez dut horrelako suterik ikusi hor. Aspertuta egotea zer den.

Kalte handirik ez da egon, baina hamar bat lan-



dare erre ziren, eta nik behintzat korrika pasa behar izan nuen ez kutsatzeko, edo usainik ez hartzeko, gutxienez. Egin duenak jakingo du zergatik egin duen, eta berak ikusiko du horrela hobeto sentitzen den edo ez. Niri penagarria iruditzen zait, behintzat. Badakizue, hego haizea.

ALEX
TELLO

Santuenea

Santueneak euskara behar du

Aste Santuko oporrak igaro ditugunean, udaberrian barna bete-betean, neguko azken egunak urrun izango ditugu. Elurteez akordatu gara erraz, oster, AEK-Korrika-euskara gogoan izatea garrantzitsua deritzot:

Korrikaren zalapartak hainbat lagun iratzarriko zituen... Esnadeia 'sinpatikoa' batzuentzat!

Auzoak dituen premien artean, nolabaiteko sailkapena egingo bagenu, euskara non kokatuko genuke?

Santuenean iduri dezakeena baino euskal hiztun gehiago dago eta auzoko haurrak etorkizunean ere euskal hiztunak izan daitezke. Esanguratsua era berean, auzoko bizilagunen portzentaia nabarmenak euskaraz ez dakiela. Sekula ez du jakingo.

Aurten euskaldun berriei omenaldia egin zaie, zorionak!

Bestetik, euskaraz mintzatzen jakin ez eta heuren seme-alaben euskalduntzean lagundu duten gurasoei nolabait txalo egin geniezaieke?

Auzoan hizkuntza zerbait dinamizatu al/ahal dai-

teke? Euskaltegiak auzoan gela bat izango balu? Ekintzak bideratu daitezke? Sikiera, NOAUA!n aipatzen direnak egoki uler ditzaten?

Euskara sustatzeko ekimenak guraso batzuek eskertuko lituzkete, baita edadeko euskal hiztunek ere. Oharkabea, batek baino gehiagok kale topaketetako solasaldietan, eguraldiaz hitz egiteko edo agurtzerakoan adibidez, euskaraz lau hitz elkartrukatzea (azalekoak izanik!) eskertuko luke.

Gai delikatua aukeratu dudana, eztabaidagarria oso eta egia aitor, lerro hauek zalantzan uzten naute, izan ere, jaio naizenetik bi hizkuntzekin hazi eta bizi bainaiz.

Euskara maite dut. Gaztelera jakitea komenigarria eta garrantzitsua deritzot (hizkuntzen ezagutza aberasgarria beti). Oharkabetasuna edo utzikieriatatik gezurretan nagoela iduri dezakeen arren, Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dut (nire esku dago?) eta ene borondatea ezinbestekoa izanik, ingurukoene (auzoak, guztiak) parte-hartzea beharrezkoa deritzot.

Santueneak euskara behar du. Ni(k) ere bai!

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Udaberria

Konturatzeko, denbora gutxian ikaragarriko paisaia aldaketa izan dugu. Orain dela hilabete exkax elurretan aurkitzen ginen. Txuria zen inguruko kolore nagusia. Baina badirudi, eguzkia esnatzen hasi dela eta berde kolorez jantzi zaizkigula inguruko zelaiak. Loreak hasi dira ateratzen, txoriak kantatzen... Bizia hartu du lurra eta hori dela eta, baratzetako lana ere hasi da.

Negua joatearekin, gure tristurak ere joan direla dirudi eta udaberriarekin askoz ere alaiago aurkitzen garela esango nuke. Jendea gehiago irteten da etxetik eta gure auzo honetan atzematen da hori. Bai erriberatik, bai Santuenean gorako bidetik jende asko ikusten da paseatzen. Parkera ere hasi da jendea hurbiltzen eta guzti honek bizia ematen dio

gure auzoari. Esan liteke, udaberriarekin batera, gure auzo hau ere esnatu egin dela.

Beste kontu bati eutsiz, errepide ertzeko marrak margotu dizkigute. Ez ziren ikusi ere egiten eta orain dela bi aste edo, margotu dituzte berriz. Errepide erdian ez dute marrik margotu, ez baitu bi karril banatzeko adina tokirik. Baina errebueltan, erdiko marra hau margotu egin dute, zati horretan bakarrik. Honen inguruan esan nahi nuke, oso egokia iruditu zaidala. Askotan ahaztu egiten zaigu aurkako norabidetik kotxe bat etor daitekeela, norberarentzat bakarrik hartzen baitugu errepide osoa. Marra hau dela eta, nik uste, konturatuko garela bakoitzari bere aldera joatea dagokiola. Ea hala izaten den!

Korrika pasa zen Korrika

Epa denoi. Hemen gatoz berriro ere, baina Oraingo honetan negua atzean utzi eta udaberriko goxotasunarekin.

Duela aste pare bat Korrika pasa zitzaigun gure inguruetatik, amaitu ere Bilbon amaitu zen eta aurtengo edizioa beste behin ere oso arrakatsua izan zen.

Inoiz pentsatu al duzue euskararen aldeko ekitaldi honek Euskal Herriko zenbat txoko pasatzen dituen? Pentsa hainbeste kilometrotan denetarik ikusten da, hiriak, herriak, mendiak...

Aste Santua pasa berri dugula kontuan hartuz, zenbat jende joan ote da egun hauek kanpoan pasatzera (Mediterraneo aldera, Andaluzia aldera...)

Urrutira joan gabe, hemen inguruan ere badiugu hainbat txoko eta leku dotore eta, aldi bere-



an, ezezagunak askorentzat, ea denon artean ezagutzen ditugun eta ingurukoei behintzat erakusten dizkiegun. Udaberrian gaude eta eguraldi eguzkitsuak aprobetxatuz goazen paraje hauek ezagutzera!

Aginaga



**AINHOA
SALSAMENDI**

Zubietarako planak

Zer ez dute egin behar Zubietan! Eginak dituzte fruta-merkatua, Realaren Zubietan XXI proiektua eta garraio-gunea. Baina gutxitxo, nonbait. Inork nahi ez dituenak, inon nahi ez dituztenak Zubietara ekartzeko joera gero eta nabarmenagoa da.

Beti dago egitasmo beldurgarriren bat: erraus-te-planta, kartzela, Loiolako kuartela, milaka etxebizitza... Eta zurrumurruei kasu eginez gero: Intxaurrendoko kuartela. Eskualdea urri omen dabil "ekipamenduetan", eta guri egokituko zaigu, itxuraz, behar horiek asetzeko lurra jartzeta.

Joan den martxoaren 16an Zubietan izan genituen Donostiako Plan Orokorren aurrerapena diseinatu duten teknikariak. Aurkezpena herri-tar asko hurbildu zen eta osorik euskaraz egin zen.

Aurkeztu zuten aurrerapenean, planak hipodromoko aldean eragiten du gehienbat. Eremu handi bat ekipamenduetarako egokitzen dute: gaurko hipodromoa dagoen tokian etxeak jar-

tzen dituzte, eta mendialdera eramaten dituzte hipodromoa nahiz bestelako jarduketak. Abalozko erreka-ingurua babestuta geratzen da, eta eliz-aldean urbanizazioari jarraipena ematen zaio, etxe berri batzuk egiteko aukera emanez. Gainontzean, erriberak nekazal ustiapenerako gordetzen dituzte. Horiek guztiak, momentuz, asmoen aurrerapenak baizik ez dira. www.donostia.org web helbidetik kontsulta daiteke plangintza hori.

Bien bitartean, Donostiako Udala bere bidea egiten ari da eta, zenbait kasutan, Plan Orokor berrituak planteatutakoekin bat ez datozen ideiak proposatzen ditu. Esate baterako, Odonek ez du hipodromoa lekuz aldatzeko asmorik erakutsi, eta horren ordez hipodromoa pribatizatze-ko eta eraldatzeko proiektua jarri du martxan.

Ez dakigu zer pasako den. Ez dakigu nora goazen. Gauza bat dago garbi, hala ere: aldaketa aroa dator Zubietara. Desio bakarra: gure lurrak eta herri-izaera errespetatzea. Erabat ez gaitzabela irentsi behintzat.

Zubietan



**XABIER
ARREGI**

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketa jarri du martxan Usurbilgo Udalak

Iaz, Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan sarituak izan ziren lanak liburu batean bildu dira. 2004an, guztira, 107 lan aurkeztu ziren eta horietatik 21 idazlan eta olerki dira liburu honetan azaltzen direnak. Liburuaren 500 ale argitaratu ditu Udalak eta Udaregi Ikastolan eta Zubieta eta Aginagako herri eskoletan banatuko dira. Nolanahi ere, ale gehiago eskuratu nahi izanez gero, udaletxe-ko euskara zerbitzuan jaso daitezke.

Deialdi berria egin da

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan parte hartzeko bi bide daude: Udaregi Ikastolako ikasleek ikastolan bertan aurkeztuko dituzte lanak, eta ikastolan ez dabiltzan usurbildarrek Udala Euskara Zerbitzura eraman beharko dituzte euren idatziak. Lanaz gain, eta lanari gratatuta, lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea,

adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila adierazi beharko dira. Lan bakoitzak egile bakarra izango du eta DBHko ikasleek lana ordenadoren idatzia aurkeztuko dute.

Olerkiaren neurria librea izango da, baina prosazko lanek neurri jakinak izan behar dituzte: A taldekoek 1 edo 2 orrialde, B taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 5 orrialde, C taldekoek gutxienez 2 eta gehienez 6 orrialde, eta D taldekoek gutxienez 3 eta gehienez 8 orrialde.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 20an amaituko da.

Sariei dagokienez, talde bakoitzak bere sariak ditu. A taldean, lehen hiru sariak 50, 40 eta 30 euro materialetan eta diploma bana.

B taldean, lehen hiru sariak 60, 50 eta 40 euro materialetan eta diploma.

C taldean, lehen hiru sariak 70, 60 eta 50 euro materialetan eta diploma.

D taldekoek, 80, 70 eta 60 euro dirutan eta diploma.



UDAREGI IKASTOLAN, ZUBIETAN ETA AGINAGAKO ESKOLAN 500 ALE BANATUKO DIRA.

Epaimahaikide izango dira: Luis Aranalde, Xabier Pikabea, Juan Luis Zabala eta Ibon Beristain.

Pintura dekoratzailea eta "trompe l'oeil" ikastaroa

Usurbilgo Udalak, Inemek diruz lagunduta eta Europako Gizarte Fondoak kofinantziaturik, Pintura dekoratzaile eta "trompe l'oeil" ikastaro berri bat antolatu du. Ikastaro hau FIP deritzon egitasmoaren barruan kokatzen da eta langabetuei zuzendua dago.

Lanerako prestakuntza ikastaro honetan, 15 lagunek har dezakete parte. Nahiz eta lanbidearekiko interesa duen edonorentzat izan, Arte Ederretan lizentziatu, dekoratzaile, arte aplikatuetan eta artistikoetan prestatuei ere zuzenduta dago. 609

ordutakoa izanik, apirilaren 18an hasi era azaroaren 11n bukatuko da.

Ikastaro honek bi modutan gaitu nahi ditu langabetuak, alde batetik, obrako pinturako edozein lan egin ahal izateko eta bestetik, lan espezializatuak egiteko trompe l'oeilaren ezarpenaren bitartez.

Izen emateak Lasarte-Oriako Enplegu bulegoan egin daitezke, martxoaren 31 bitartean.

Informazio gehiago ondorengo leku hauetan jaso daiteke: Usurbilgo Udaleko Garapen Ekonomiko eta Enplegu Sustapen Departamentuan (943 371 957 telefonoan), edo Lasarte-Oriako Enplegu Bulegoan (943 36283 telefonoan).



IZENA EMATEKO EPEA MARTXOAREN 31N AMAITUKO DA.

Lokalak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza behin betikoz onartu da

Duela aste batzuk orriotan jakinarazi genuen bezala, herri askotan hasi dira lokalei etxebizitza erabilera aitortzen. Usurbilgo Udalak behin betikoz onartu duen udal ordenantzaren bidez, bi arazo konpondu daitezke: hutsik dauden lokalei erabilpen berri bat emateko aukera, batetik; etxebizitza eskuratu nahi dutenei alternatiba berri bat eskaintzea, bigarrenik.

Orain artean, inork ez zuen baime-nik jaso. Baina udal ordenantza hau behin betikoz onartu denez, jada indarrean da eta Udala baimenak ematen has daiteke.

Plenoaren oneritzia jaso eta gero, hainbat lokalei etxebizitza erabilera aitortu ahal izango zaie. Lokal denei? Ez. Hasteko, udal ordenantzatik kanpo daude lur azpian dauden baje-rak edo garajeak. Soilik beheko plantako lokalak egokitu ahal izango dira; azalean daudenak, alegia.

Baina, adi. Honek ez du esan nahi lokal denak automatikoki etxebizitza izaera hartzeko eskubidea izango dutenik. Baldintza batzuk bete beharra daude, eta horietako asko uste baino zorrotzagoak dira.

Informazio gehiago, Udaletxean bertan jaso daiteke. NOAUA! aldizkariaren 199. alean ere, bete beharreko baldin-



SOILIK BEHEKO PLANTAKO LOKALAK EGOKITU AHAL IZANGO DIRA; AZALEAN DAUDENAK, ALEGIA.

tza nagusien xehetasunak topatuko dituzu (noaua.com orrialdean, 199 alean sartu eta *Kontzeju txikia* klikatu).



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Softwarea eta Aplikazio Informatikoak Alokatzeko Zerbitzuak

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Teknologia azkar zaharkitzen da. Softwarea alokatuz gero, programak erosteko **kostu finkoez ahaztu eta ez duzu instalazio eta mantentze lanaz kezkatu beharrik izango**. Mintegi honetan, zerbitzu hauek kontratatzeko diru laguntza nola lor dezakezun ere erakutsiko dizugu.

Donostialdea
apirilak 5
HERNANI
 Hernani BHI (EPO)
 Karmelo Labaka Eraikina

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:




euskadi
diru laguntza teknologikoari

e-gipuzkoa

SPRI

Artolatzailea:



Miramón
 Enpresa Digitala

Ia ikasle denek sakeleko telefonoa dute

Sakeleko telefonoen garaian bizi gara. Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 urtetik 24ra bitarteko gazteen %94 sakeleko telefono baten jabe da. Eustat-ek, Euskal Estatistika Erakundeak emandako datua da. 10-14 urte bitarteko adin-taldean eman da, ordea, hazkunderik handiena: 2003ko azkeneko hiruhilekoan %27,1ek zuen bere sakeleko telefonoa baina 2004ko azken hiruhilekoan, aldiz, %50,4k. Adinean gora egin ahala, sakeleko telefonoa duen ikasleen kopuruak gora egiten du. Ia %100era iritsi arte.

Hazkuntza hau Udarregi Ikastolan ere igarri da. Xabin Aizarna ikastolako zuzendaria da eta eman dizkigun datuen arabera, sakeleko telefonoa jada ohikoa da DBHko ikasleen artean. DBH 1ean, ikasleen % 31 sakeleko telefonoaren jabe da. DBH 3n, ordea, kopuru hori %88ra iristen da. Hala ere, sakeleko telefonoen ugaltzeak ez du ikastolaren jardueran eragin.



XABIN AIZARNAK ADIERAZI DIGUNEZ, "GUREGANA EZ DA INOR ETORRI SAKELEKO TELEFONDAREN ERABILERAZ KEZKATUTA".

XABIN AIZARNA Udarregi Ikastola

"Sakeleko telefonoen erabilerak ez du arazorik sortu ikastolan"

NOAUA! Arazorik sortu al da sakeleko telefonoen erabilerarekin? Klaseko ohiko jarduera oztopatu eta arau jakin batzuk ezarri behar izan al dituzue?

Xabin Aizarna. Ez, ez du arazorik sortu ikastolan, ez eta gela barruan ohiko jarduera oztopatu ere. Hasiera-hasieratik arau pare bat finkatu eta ikasle eta gurasoei jakinarazi zitzaizkien. Arauak hauek dira:

Bat. Gelan sakeleko telefonoaren txirri-na entzunez gero, ikasleari telefonoa kendu eta gurasoei hots egingo zaie, hauek jasotzera pasa daitezten.

Bi. Bigarren aldiz gertatuz gero, ikasleari telefonoa jasoko zaio, ikasturtearen

amaieran itzuliz.

Baina, arestian aipatu bezala, ez dugu arazorik izan.

N. Sakeleko telefonoen erabilera dela eta, gurasoak kezkatu al dira? Zuri iritsi al zaizu baten bat gai honekin kezkatu irrik?

X. A. Gai honetaz gurasoak kezkatu ote dauden ala ez, ez dakit; niregana ez da inor etorri sakeleko telefonoaren erabileraz galdezka.

N. Eta ordenadore edo Internet konputuekin kezkatuta sumatu al duzu gurasorik?

X. A. Gaurdaino ez dut sumatu gai honetaz gurasoren bat edo beste kezkatu dagoenik. Nolanahi ere, hiritar gisa, komunikabideetan irakurri izan dut nerea beak ordu luzez ordenagailura lotzen direla. Nire ustez, zenbait jarduerarako, Internetek aukera anitz ematen du; lanerako erabiltzeaz gain, aisialdirako ere baliozgarri izan daiteke. Baina, beti bezala, erabilera egoki eta orekatua bilatu behar da.

Gazte bat, telefono bat

Aztertutako adin-talde guztietan, 10-14 urte bitartekoan eman da hazkunderik handiena: 2003ko azkeneko hiruhilekoan %27,1ek zuen bere sakeleko telefonoa baina 2004ko azken hiruhilekoan, aldiz, %50,4k. Hazkuntza hau Udarregi Ikastolan bertan igarri da. Datu hauek Udarregin bertan jasotakoak dira.

Ikas-maila	Sakeleko telefonoa duen ikasle ehunekoa
DBH 1	% 31
DBH 2	% 71
DBH 3	% 88
DBH 4	% 84

Patxi Vaquerizo, Lanbide Eskolako zuzendaria: “Interneten erabilera okerra kezka-iturri da guretzat”

Udarregi Ikastolan bezalaxe, Zubietan dagoen Lanbide Eskolan ere neurriak hartu behar izan dituzte. Hala ere, Patxi Vaquerizo zuzendariak aitortu digunez, “arraroa da telefono baten soinua klaseko orduetan entzutea”. Sakeleko telefonoa bezalaxe, Internet eta ordenagailuen erabilera kezka-iturri bihurtu da. Horretaz guztiaz hitz egin dugu Patxi Vaquerizorekin.

PATXI VAQUERIZO
Usurbilgo Lanbide Eskola

“Mobilak klasearen martxa oztopatzen badu, jabea klasetik kanporatua izan daiteke”

NOAUA! Sakeleko telefonoen hazkuntza eskolan bertan igarriko zenuen.

Patxi Vaquerizo. Telefonoaren erabilera gora egin duela sumatu dugu. Gaur egun, ia ikasle denek sakeleko telefonoa dute eta eskolara ekartzen

dute.

N. Arazorik sortu al da sakeleko telefonoen erabilerarekin? Noizbait klaseko jarduera oztopatu izan al du?

P. V. Klasean, irakaslea azalpenak ematen ari zela, maiz entzuten zen sakeleko telefonoaren txirrina. Horregatik, duela asko, klasean sartu aurretik telefonoa itzaltzeko eskatu genien ikasleei. Hala ere, bada sakeleko telefonoa pizturik mantentzen duen ikaslerik, piztuta baina soinurik gabe. Eta deia jasotzen badu, klasetik ateratzeko eskaera egiten du. Gaur egun, arraroa da sakeleko telefono baten soinua klaseko orduetan entzutea. Telefono dei batek klasearen martxa oztopatzen badu, jabea klasetik kanporatua izan daiteke.

N. Zuengana hurbildu al da gurasoren bat gai honekin kezkatuarekin?

P. V. Ez ditugu gurasoen kexuak jaso. Gure eskolako ikasleak nagusiak dira jada. Pentsatzen dut gurasoak ohituta egongo direla eta arduratuta jarraituko dutela sakeleko telefonoaren erabilera izan duen gorakadarekin.



KLASEAN SARTU AURRETIK, TELEFONOAK ITZALTZEKO ESKATU ZITZAIEN IKASLEEI.

N. Akaso, telefonoa baino, ordenadore edo Internet kontuak dira kezka-iturri. Hala al da?

P. V. Guretzat ordenagailuaren erabilera eta Interneterako konexioa lantresna dira. Dena den, lan-tresna hauen erabilera okerra eta horiekiko dependentzia kezka-iturri dira guretzat.

Sakeleko telefono zaharrak, birziklatzera

Sakeleko telefonoa aparailu berria da, baina dagoneko indar handiarekin sartu da gure eguneroko bizimoduaren. Ikusi dugun moduan, ia gazte denek era horretako telefono bat dute. Gainera, teknologiak oso azkar egiten duenez aurrera, denbora gutxian, ezaguri berriak dituzten aparailu berriak atera dira merkatura. Gero eta maizago, sakeleko telefono berri bat eskuratu eta zaharra alde batera uzteko joera dugu. Baina, zer egin telefono zahararekin?

Badira sakeleko telefonoak birziklatzeko prestatuta dauden hontziak. Aparailua bertan utzi ondoren, gai horretan aditua den enpresa batek berriz ere erabili daitezkeen elementuak berreskuratzen ditu. Besteak beste, beira, plastiko eta metal zuntzak eta kobrea berreskuratu daitezke. Pentsa, telefono bat birziklatzetik ateratzen diren elementuen %90a erabilgarria da eta merkatuan saldu daiteke.

Usurbilen, non utzi? San Markos mankomunitateko ibil-

gailua hilabeteko lehen asteazkenean igaro ohi da. Mobila bertan uzteko aukera aparta dugu.

Zer lortuko dugu era honetako neurriak hartuko bagenitu?

-Erabiltzen ez diren sakeleko telefonoei ingurumenari egokitutako tratamendua ematea.

-Etxebizitzetan pilatzen diren aparailuei erantzuna ematea.

-Ingurumenaren aurreko errespetuzko jarrera bultzatzea.

-Materialen birziklatzearekin lehengaiak aurrezteak.



NOAUA!ko Bazkideen Batzar Nagusian iazko balantzea eta 2005erako egitasmoak aztertu ziren

Bazkide guztiei gutunez jakinarazi zitzaizuen bezalaxe, martxoaren 19an egin zen NOAUA!ko Bazkideen ohiko Batzar Nagusia. Gaur egun, bazkideak 515 lagun diren arren, dozena bat izan ziren martxoaren 19ko batzarrera hurbildu zirenak.

2004ko balantzea egiterakoan, kultur elkartearen, aldizkariaren eta web orrialdearen jarduerak azaldu ziren. 2004ko diru-kontuen balantzea egin eta gero, Zuzendaritza Batzordeak 2005erako dituen egitasmoak aztertu ziren.

Astekaria proiektuaz ere, luze hitz egin zen. Baina itxi gabeko eztabaida izan zen. Web orrialdeak ere, zeresanik eman zuen. 2005eko aurrekontua ere, nola ez, aztergaien artean izan zen.

Ez zen kargu-aldaketarik eman. Beraz, datorren urtean lan-talde berdinak jarraituko du Zuzendaritza Batzordean lanean. 2005ean ere, Ana Aizpurua izango da Kultur Elkartearen lehendakaria.



EZ ZEN KARGU-ALDAKETARIK EMAN. 2005EAN, ZUZENDARITZA TALDE BERTINA ARITUKO DA LANEAN.

Orain, noaua.com web orrialdean posta zerbitzua

The screenshot shows a registration form on the website 'usurbil.com'. The form has a header with the website name and a logo. Below the header, there are two input fields: 'Erabiltzaile izena:' (User name) and 'Pasahitza:' (Password). To the right of the password field is a button labeled '@ usurbil.com sartu'. Below these fields, there is a question 'Pasahitza ahaztu al zaizu?' (Did you forget your password?) and a link 'Erregistratu' (Register). The background of the form features a collage of images, including a person and some food.

**Klik egin www.noaua.com/posta helbidean eta erregistratu zaitez
Doan aterako zaizu, xentimorik ordaindu gabe**

Maiatzaren hasieran, Hiru Truku eta Arditurri taldeak arituko dira Usurbilen

Jexux Artze Taldeak prest du aur-tengo egitaraua. Bi izango dira antolatuko dituen jaialdiak. Maiatzaren 6an, Arditurri taldea arituko da Oiardo Kiroldegian. Biharamunean, eta leku berean, "Nafarroako kantu zaharrak" diskoa aurkeztuko du Hiru Truku taldeak. Laster izango dira sarrerak salgai.

Juan Mari Beltran, Euskal Herriko musikagintzaren ikertzaile nekaezina da. Ikertzaile izateaz gain, musikaria ere bada. Arditurri taldearekin batera, "Gogoaren bidezidorretatik" diskoa plazaratu zuen duela bi urte. Lan hori aurkeztera etorriko da gure artera Juan Mari Beltran.

Arditurri taldearen saioa maiatzaren 6an izango da. Hurrengo egunean, maiatzaren 7an alegia, Hiru Truku taldea izango da protagonista. Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bixente Martinez dira hiru tru-



JEXUX ARTZE TALDEAK EKARRIKO DU HIRU TRUKU GURE ARTERA.

kuak. Bizkaiko kantuak ardatz zuten bi disko argitaratu ondoren, azken diskoan Nafarroako kantutegi zaharrea erreparatu dute. Lan hori plazaratuko dute Usurbilen. Saioa baino lehen, txalapartariak eta albokariak arituko dira herriko kaleetan barrena.

Apirilaren 7an, Santixabeletako Jai Batzordearen bilera

Martxoaren erdialdean, Santixabeletako Jai Batzordearen lehen bilera ospatu zen. Datorren bilera apirilaren 7an egingo da, arratsaldeko 20:00etan, udal liburategian.



JAIK PRESTATZEKO HASTEKO UNEA IRITSI DA.

Goizean goiz pasa bazen ere, harrera beroa egin zitzaion Korrikari



NOAUA! KULTUR ELKARTEKO ZEIN BOTA PUNTTUBAKO ORDEZKARIAK, ZUBIETAN BARRENA.



BERANDU IRITSI ZEN ARREN, KALEZARREN ZAIN ZIREN LAGUNAK GOGOTSU EKIN ZIDTEN KORRIKARI.



EGUNEKO ZENTROKO LAGUNEK EGOITZAN BERTAN JASO ZUTEN HAUR ESKOLAKOEN LEKUKOA.

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 43
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA

KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK ETA MANTENIMENDUA

Aritzako Kalea, 6 Tel: 943 363 348
Behera Mugikorra: 609 088 921

**PATRI
JATETXEA**

plater konbinatuak
eguneroko menuak
ogitariekak

943 362 725

Kale Nagusia, 14

“Gustura izan gara hemen lanean”

San Inazioko errotonda martxan dagoen arren, lanak ez dira oraindik amaitu. Baina gutxi falta da. Egunero lanean izan diren langileengana hurbildu gara honakoan. Alfredo Acuña, langileen enkargatua, izan da gure solaskidea. Alfredok esan digun bezala, "proiektu baten inguruan egiten da lan. Baina proiektua ez da definitiboa. Praktikan, egitasmoa behin eta berriz errealitatera egokitu behar izaten da". Aurreikusi baino 105 metro gehiagoko espaloia egin da, esate baterako. Pozik azaldu dizkigu obraren gorabeherak. Esker onez azaldu da, gainera, gure inguruan jaso duten laguntzarengatik.

Eduardo Satostegi izan da lanen injenierua. Eta Acuña, eraikuntzaz arduratu den enpresa. Langileen enkargatua da Alfredo Acuña. Gazte honek aitortu digunez, era honetako lanak uste baino konplexuagoak dira: "bideak ezin dira denbora luzez itxi. Bestetik, gauza asko lotu behar dira. Zerbitzu asko hartu behar dira kontuan: gasa, ura, zuntz optikoa... Dena sinkronizatu behar da eta hori izan da erronka nagusia". Auzoa urbanizatzeko aukera aprobetxatu da, zerbitzu ezberdinekin hornituz. Txaramuntoko etxe berriek ere baldintzatu dute urbanizazio-lana.

Errotonda, oker?

Errotondak duen peraltea begibistakoa

da. Ez da laua. Alfredok honako argudioak eman dizkigu: "jada martxan diren bide batzuen gainean ipini behar izan dugu errotonda. Bideek baldintzatu dute obra. Bide ezberdinen kotara moldatu behar izan dugu, baina araudia betez. Laua izateko, bide ezberdinen kota igo beharko genuke, eta kota guztiak parekatzeko, inguruko etxeren batek zulo batean geratzeko arriskua zuen". Beraz, bideek eta etxeek baldintzatu dute errotondaren peraltea.

Galdetzen hasita, Kale Nagusitik datorren bidea estu samar geratu ez ote den jakin nahi izan dugu. "Kale Nagusitik datorren ibilgailuak zig-zag modukoa egin behar du. Bihurguneak ahalik eta gehien sahiesten saiatu gara. Froga asko egin ditugu eta horretarako, Euskotreneko autobus artikulatua ekarri dugu behin baino gehiagotan", esan digu Alfredo Acuña.

Errotonda parean, parke txiki bat

Errotondak parke txiki bat ekarri du. Alfredok azaldu digunez, "altuera eman diogu parketxoari, oinezkoa babestua sentitu dadin". Parkean dagoenak kotxeen beldur izan ez dezan. Iñigo Segurola paisajistak egingo du errotondako berdegu-nearen diseinua.

Bizilagunekin tratu zuzena izan dute eta euren laguntza jaso dutela aitortu digu Alfredo Acuña, langileen enkarga-



LANGILEAK POZIK IZAN DIRA HEMEN LANEAN.

tuak: "udaletxean ere, asko lagundu digute, teknikoek, zinegotziek, udaltzaingoeak... Beste udaletxe batzuekin konparatuz, hemen bizilagunen iritzia kontuan hartzen da", hala adierazi digu Alfredok.

Markesina berria, jada martxan

Zumaiaetik Donostiara doan autobusa San Inazio errotondako markesina berrian geratzen da. Martxoaren 29tik martxan baita markesina berria.

Oraindik ez dira bus geltokiak erabat zehaztu, Udala eta Foru Aldundiaren iritzia ez datoz bat. Bien bitartean, markesina berrian hartu beharko da Donostiara doan Euskotreneko autobusa.

LOU IZARRALDE ilcapaindegi mixtoa
 Permanente inteligenlea, rizozen kiribilketa kontrolatuarekin.
 Solarium-a, estetika, depilazioa, manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilajua.
 Zubiamuntza, 5b Telf: 943 36 19 71

ANDONI PINTURAK
 Fatxada eta barnelanetan Espezializatua
 C/Etxeberri, 8 (kalezar) Usurbil
 Tel.: 943 361 318
 Móvil: 605 702 517

MAHUKA
 Etxeberri Kalea, 3 - 943 361 100
 Hemen aurkituko duzu glizon eta emakumezkoen MODAKO ARROPA

TXIRIBOGA TABERNA
 ntx k, k t k
 t l r k n n t u k
 Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Hastera doa Euskal Joko eta Jolasen Bigarren Topaketa

Iaz, lehen aldiz, Euskal Joko eta Jolasen Lehen Topaketa egin zen. Euskal joko tradizionalak berreskuratu eta indartzeko asmoz, herrien arteko euskal jokoen txapelketa jarri zen martxan. Xiba izenarekin aurkeztu zen ekimen honetan, usurbildar gazte koadrila batek hartu zuen parte. Pasa den urteko emaitzak lortzekotan edo ahal bada hobetzekotan, Usurbilgo delegatuak taldea osatu eta egitasmoa garatzeko deialdia egin du. Bilera apirilaren 8an egingo da, arratsaldeko 20:00etan, NOAUA!ko egoitzan bertan.

Xiba izeneko jardunaldi hauetan, herrialde ezberdinetako taldeak elkarren artean arituko dira lehian. Iaz, euskal jokoak hiru multzotan banaturik zeuden: jaso/altxa, garraiatu eta besteak.

Euskal dantzak

Topaketa hauekin, lehia sustatzea baino, euskal jokoak ezagutarazi eta herrien arteko harremanak sendotu nahi dira. Bitxia bada, euskal dantzak ere leku berezia du Xiba jardunaldietan. Probatako batean talde bakoitzetik



APIRILAREN 8AN, ARRATSALDEKO 20:00ETAN, USURBILGO TALDEA ANTOLATZEKO BILERA EGINGO DA NOAUA!KO EGOITZAN. IRUDIAN, IAZKO TALDEA.

bi bikotek hartuko dute parte eta fandangoko eta arin-arin bana dantzatu behar dute.

Parte hartzeko, zer egin?

Parte hartzeko zer egin behar da? 16 urte badituzu, listo. Nahikoa da. Baina

Herri Kirol Federazioko lizentziaduna bazara, jai duzu.

Beraz, une atsegin bat pasatzeko gogoz bazaude eta euskal jokoetan aritu nahi baduzu, apirilaren 8ko bilerrara azaldu. 20:00etan, NOAUA!ko egoitzan.

www.noaia.com
USURBILGO ATARIA

GLG
garraioak
ZABOR BILKETA
TELF: 943 37 01 46

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE Nagusia 10 - 48100 KALPIA

MIKEL IZGIE
ELEKTROITIA
Kale Nagusia 7
Tel. 943 37 01 46

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Zendoia
Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71



Eroria eta ukitua

- Jolas bakoitzean, ezkutuko zenbakia idatzi dugu.
- Proposatutako zenbakietan, asmatutako zifra posizio egokian badago, **eroritako** bat izango da.
- Proposatutako zenbakietan, asmatutako zifra toki egokian ez badago, baina zifra hori bada, **ukitua** izango da.

LEHENDABIZIKO JOLASA

- Ezkutuko zenbakia: 348
- Adierazi **erorien** eta **ukituen** kopuru zehatzak.

Proposatutako zenbakia	Eroriak	Ukituak
341	2	0
245		
368		
834		
438		
572		
948		
842		

BIGARREN JOLASA

- Ezkutuko zenbakia: 726
- Ezkutuko zenbakia kontuan hartuta, **eroriak** eta **ukitua**, zenbat diren ohartuz, proposatutako zenbakia aukeratu eta zutabea bete.

Eroriak	Ukituak	Zenbakia	Proposatutako zenbakia
2	0	725	276
0	3		725
1	0		427
1	2		705
3	0		726
1	1		672
0	0		652
0	2		839

L.H.3

672-705-276-726-427-839-652
Bigarren jolasa

2-0-1-0-2-0-0-3-1-2-0-0-2-0-1-1
Lehendabiziko jolasa

Soluzioa

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA

KALE Nagusia 1
629 420565 - 649 435 470
943 365 125

Larazaintza
sontak

URTINEA
urtinea@euskalnet.net

Lareak
koroak
Landareak

San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

I lts r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

NOAUA!ko LEHIAKETA!!



Anthony Hope-ren
“ZENDAKO PRESOA” nobela
Europa erdialdeko erresuma bat, gaztelu beltza, preso dagoen erregea, agintea eskuralzeko lehia, printzesa mailagarria, ezpatak, lirak, burrukak, gaizto atseginak...
11 kantuz osatutako
“KUKUMA” taldearen musika cd-a

Lehiaketako galdera hau asmatzen baduzue sari zoragarri hau irabaz dezakezue!
EZETZ ASMATU!!!

Nola izena du munduari itzulia ematen ari den usurbildar gaztea?

1) ANDONI IRAOLA
2) AITOR EGILETA
3) HAIMAR ZUBELDIA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **MARIXOAK 25**
 Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkarteko buzoian edo e-posta: erredakzioa@noaua.com

201. lehiaketako erantzuna:
 Nor izan zen Noaua! Kultur Elkarteko lehen lehendakaria?
ANDONI SAGARNA

Irabazlea **LEIRE URALDE** izan da.
 “Usurbilgo baserriak eta baseritarrak” liburua, Noaua!ko kamiseta eta herriko zortzi postal zoragarri irabazi ditu.
ZORIONAK! Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan.



Irudian: Usurbilgo pilotaria **Soluzioa: 22. orrialdean.**

	* DEITURA	Pl., fruta mota	Euri jasa	Noka, da	Nauka
	Dinatasun	Ez itxiak	Istu	Ezkontide arra	
▶		▼	▼	▼	▼
Irauten duena	▶				
Jorratua					
Armiarnasare	▼	Entzuteko moduan	▶	Non atzizkia	▶
Amerikakoak		* IZENA		Bibliako pertsonaia	Modu atzizkia
▶	▼			▼	▼
Emakume izena	▶		Gure bandera		
Nahi bizia			Etxeko abere		
▶			▼	Jatorri atzizkia	▶
Otx!	▶	Una, neka	▶	Ikas eta Ari!	Iodoa
Diru zahar		Nor atzizkia		Da	Sua
▶		▼		Noren atzizkia	▼
			Suari dariona	▼	Jakaren erdian
			Sufrea		Bokala
Ikusten nuen	▶		▼		▶
				Baita	▼

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.
- Kaxkoanpisu bat alokatzen da. 115m2, 4 gela, 2komun, sala eta sukaldea. Abala eskatzen da. Interesatuak, 943361730 (20:00-22:00).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.
- Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. 600901150.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Ford Fiesta salgai. Diesel 1.8, SS-AV. Egoera onean. 637 135 088.
- Aparkalekuak dauzkat salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. 607905859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da kale nagusian. Interesatuak deitu 943361235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677552258 (Sharon)
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667694469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626641155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko

zerbaitetan. 652 757 495.

- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.
- Oporretako, ospakizunetako, edota edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Informazio gehiago nahi izan ezker deitu 943- 555835 edota 617-242660 telefonora.

Lan-eskaintzak

- Orioko ilepaindegi batean estezista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Astelehenetik ostiralera, eguerditan pertsona bat behar dugu Antxeta jatetxean lan egiteko. Interesatuak deitu 943370344 telefonora.
- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Ikastolen Elkarteak uztailean burutuko diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako begiraleak behar ditu. Beharrezkoa: 18 urte beteta izatea, euskara menperatzea eta begirale titulua izatea. Izen emate epea: martxoak 11. Non: Ikastolen Elkarte, 94 4354340 /www.bieikastola.net.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Oporretarako, astebukaeretako edo despeditarako txaletak alokatzen ditugu Peñiskolan. Itsasora zein mendira begira dauden txaletak. Gune berdeak, pizsina, teniserako pistak, sauna, squach, eta umeentzako parkea. Interesatuak: 964491022 edo 677780680.
- Errepide ondoko autobus geltokian Karpeta txuri bat galdu dut. "Aulas Kutxa" hitzak ditu azalean. Aurkitu duenak deitu 943364733 zenbakira.


- Ekonomia sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodera barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gaeuz.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762
- Asten zehar eski-begirale izateko jendea behar du Ikastolen Elkarteak. 943444702.

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Pitxitxina!
Martxoaren 13an bi urte handi egiteagaitik. Muxuak etxeko guztien partez.



Zorionak aitona Miguel!
Martxoaren 23an bete zenuen urteak. Badakigu ondo pasa zenuela eguna eta besarkada handi bat bidaltzen diezugu etxeko partez. Batez ere zure hiru biloben partez, Ainhoa, Jon eta Andoni.



Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

NOAUA! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL
Tif: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

IGELTSE ITZ
t
INTU
943 36 20 26
687 95 12 25

H n k n U z n n, s l z
USU ILG H TZ KLINIK
FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E
K I N u s , 2 I . C 2 I I
Tlf 3 3 7 7 USU IL

HALA ETXEROKO EUSKAL OKELA

CARRER DE BILBURNO
TE CARRETERA DEL TAU VAICO
h k k l , 4
T H 4 3 3 5 7 4 2
LK T
UT ZE ITZU
F IT K
ZKI K
ETXEK OKTU K
K NOEL TU K

Agenda !

- Apirilak 7, osteguna**
 - Santixabeletako Jai Batzordearen bilera. 20:00etan, udal liburutegian.
- Apirilak 8, ostirala**
 -Euskal Joko eta Jolasen Bigarren Topaketan parte hartzeko bilera, arratsaldeko 20:00etan, NOAUA!ko egoitzan.


KzGunea

IKASTAROAK
OINARRIZKO INTERNET (20 ordu)
 1. Apirilak 4-15, arratsalde, 16:00-18:00 (euskaraz).
 2. Apirilak 4-15, arratsalde, 18:00-20:00 (gaztelaniaz).
 2. Apirilak 18-29, arratsalde, 18:00-20:00 (euskaraz).

AZTERKETAK
 1. IT Txartela. Apirilak 11 astelchena, 18:00-20:00.

MINTEGIAK
 1. "Astebukaera Euskal Herrian", martxoak 31 asteazkena, arratsez, 16:00-18:00 (euskaraz).
 2. "Via Michelinekin bidaiatu", apirilak 1 ostirala, arratsez, 16:00-18:00 (gaztelaniaz).

Literaturaren txokoa !



“Medikuak esan dit minbizia dudala”

Liburuak kon-tatzen duen historia Sustatu webgunean jaio zen, 2002ko irailaren 15ean, Joxe Aranzabal gaixotu eta lau egunera. Egun hartan, Joxek argitaratu zuen bere mezuetan lehe-na izango zena, “Medikuak esan dit minbizia dudala”, eta izena eman diona liburuari ere. Zenbaiten ustez, mezu hark mugarri bat ezarri zuen euskal kazetaritzaren histo-



rian, ordura arte inoiz jorratu gabe-ko esparru bat hasi baitzuen. Gerora etorriko ziren beste 16 mezu, bi urtean zehar idatziak. Eta liburuak denak jasotzen ditu, mezu bakoitzak eragindako erantzunik esanguratsuenekin batera.

Fitxa teknikoa:

Liburua: “Medikuak esan dit minbizia dudala”.

Argitaletxea: Elkar.

Egilea: Joxe Aranzabal.

Salneurria: 11,40 euro.

Egin kontu !

Apirilaren 7an, elikadurari buruzko hitzaldia Haur Eskolan

Soluzioa !

	⊕	H	⊕	A	⊕	Z	⊕	D	⊕
		D	U	I	N	T	A	S	U
		⊕	I	R	A	U	P	E	N
⊕	A	⊕	O	Z	E	N	⊕	A	N
	A	M	E	R	I	K	A	R	R
⊕	A	N	A	⊕	I	K	U	R	R
	I	R	R	I	K	A	⊕	T	A
⊕	A	I	⊕	A	K	I	⊕	D	A
	D	U	K	A	T	⊕	K	E	A
⊕	N	E	K	U	S	A	N	⊕	E

Medikuntza naturalean eta nutrizio energetikoan aditua da Malen Moya. Apirilaren 7an hitzaldia eskainiko du Kalezargo Haur Eskolan, Fraisoroko irakasle den Jesus Calvilloekin batera. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da hitzaldia, Kalezargo Haur Eskolan bertan.



Matrikulazio garaia ere iritsi da Usurbilgo Haur Eskolara. Informazio gehiago Haur Eskolako

bulegoetan jasoko duzue, goizero, 9:30etik 10:30era. Izen-emate epea, hala ere, apirilaren 29an amaituko da.

LATKA
Kizkorrenda

Janari prekozinatuak
 Kongelatuak
 Bertako produktuak

Zubizarrena 2, Urdul. Tel. 666 301 803

al s p s t e r a


Juan de Garay kalea
 20160 Lasarte-Oria
 Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA

Luntzapaz kalea, 16 behea
 (Arzabal). 943 26 09 80


EGIN TXOTX! SAGARDOTEGI GARAIAN

Zain duzu aurtengo sagardoa, Txotx!



SAGARDOTEGI
Sagardotegia

Kale Zahar Auzoa, 38
48900
EUSURBIL
GIPUZKOA
Tel. 943 362 228



WWW.sidrassagardotegi.com

Txotxetik irten zera kristal fiñ garbira, saltatu dezu illun betikan argira; atoz ederra, atoz, gauzkatzu begira, eragiteko baso zaudenari jira.

Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"



Urtarrilaren 14 tik irekita!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGI

ASTIAZARAN
SAGARDOTEGI
IRUIN

Betidanik hemen denon etxetik gertu.

urtarrilaren 7 an irekiko degu.



TEL. 943 36 19 09



**Elkarrizketa
gehiago
nahi al duzu?**



Erabaki dezagun

